# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**6372**

**546/2009 ERABAKIA, irailaren 8ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, behin betiko onartzen da Iruraiz-Gaunako Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partziala.**

Ekainaren 25eko 373/2009 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Iruraiz-Gaunako udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partzialari. Hiri lurzoruaren mugaketa partzial hori Iruraiz-Gaunako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntual hauek kontuan hartuta egin da: Acilu, Alaitza, Erentxun, Gazeo eta Langarikako SUR-1i eta Gereñuko SAUR-1i buruzko lehen aldaketa puntuala, otsailaren 19ko 53/2008 Foru Aginduak baldintzekin onartua, eta baldintzok bete ondoren, behin betiko onartua irailaren 23ko 570/2008 Foru Aginduaren bidez; Trokonizen ekipamendu sistema orokorra eratzeari buruzko bigarren aldaketa puntuala, irailaren 24ko 579/2008 Foru Aginduak onartua, eta Arrietako lurzati urbanizaezin bat hiri lurzoru sailkatzeari buruzko hirugarren aldaketa, apirilaren 7ko 188/2009 Foru Aginduak onartua.

Aipatutako lege arauaren xedapen zatiaren 4. artikuluan, Iruraiz-Gaunako Udalari haren berri emateko agindua ematen zen. Agindu hori 2009ko ekainaren 25ean bete zen eta udalak 2009ko ekainaren 30ean jaso zuen jakinarazpena.

Uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duenak, 11. artikuluaren 4. paragrafoan udalari hamabost egun ematen dizkio egoki deritzona jakinaraz dezan.

Iruraiz-Gaunako Udalak oraindik ez du ezadostasunik adierazi hartutako ebazpenaren aurka.

ERABAKI DU

Lehenengo.- Iruraiz-Gaunako Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketa partziala onartzea, planeamenduko arau subsidiarioetako ondoko aldaketa puntualekin bat etorriz: Acilu, Alaitza, Erentxun, Gazeo eta Langarikako SUR-1i eta Gereñuko SAUR-1i buruzko lehen aldaketa puntuala, otsailaren 19ko 53/2008 Foru Aginduak baldintzekin onartua, eta baldintzok bete ondoren, behin betiko onartua irailaren 23ko 570/2008 Foru Aginduaren bidez; Trokonizen ekipamendu sistema orokorra eratzeari buruzko bigarren aldaketa puntuala, irailaren 24ko 579/2008 Foru Aginduak onartua, eta Arrietako lurzati urbanizaezin bat hiri lurzoru sailkatzeari buruzko hirugarren aldaketa, apirilaren 7ko 188/2009 Foru Aginduak onartua.

Bigarrena.- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 2. artikuluaren b) idatz-zatiaren 1., 2. eta 3. puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo dauden hiri izaerako eraikuntzek hartutako lurzoruei dagokienez.

Hirugarrena.- Honako erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoan egunkari salduenetan ere. Gainera, hamabost

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**6372**

**ACUERDO 546/2009, del Consejo de Diputados de 8 de septiembre, que aprueba definitivamente la modificación parcial de la Delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, correspondiente al término municipal de Iruraiz-Gauna.**

Por Orden Foral nº 373/2009, de 25 de junio, se aprobó con carácter provisional, la modificación parcial de la Delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Iruraiz-Gauna. La mencionada modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano se realizó de conformidad con las siguientes Modificaciones Puntuales a las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Iruraiz-Gauna: Primera Modificación Puntual referida al SUR-1 de Acilu, Alaiza, Erentxun, Gaceo y Langarika y al SAUR-1 de Gereñu, aprobada, con condiciones, por Orden Foral nº 53/2008, de 19 de febrero, posteriormente cumplimentadas y aprobadas definitivamente por la Orden Foral nº 570/2008, de 23 de setiembre, Segunda Modificación Puntual referida a la creación de un Sistema General de Equipamiento en Trokoniz, aprobado por Orden Foral nº 579/2008, de 24 de setiembre, y Tercera Modificación referida a la reclasificación de una parcela de suelo no urbanizable a suelo urbano en el pueblo de Arrieta, aprobado por Orden Foral nº 188/2009, de 7 de abril.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna, disposición que se realizó con fecha 25 de junio de 2009, siendo recepcionada por el Ayuntamiento con fecha 30 de junio de 2009.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

A fecha de hoy, el Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

ACUERDO

Primero.- Aprobar la Modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Iruraiz-Gauna, de conformidad con las siguientes Modificaciones Puntuales a las Normas Subsidiarias de Planeamiento: Primera Modificación Puntual referida al SUR-1 de Acilu, Alaiza, Erentxun, Gaceo y Langarika y al SAUR-1 de Gereñu, aprobada, con condiciones, por Orden Foral nº 53/2008, de 19 de febrero, posteriormente cumplimentadas y aprobadas definitivamente por la Orden Foral nº 570/2008, de 23 de setiembre, Segunda Modificación Puntual referida a la creación de un Sistema General de Equipamiento en Trokoniz, aprobado por Orden Foral nº 579/2008, de 24 de setiembre, y Tercera Modificación referida a la reclasificación de una parcela de suelo no urbanizable a suelo urbano en el pueblo de Arrieta, aprobado por Orden Foral nº 188/2009, de 7 de abril.

Segundo.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

Tercero.- El presente Acuerdo será publicado en el BOTHA y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se

egunez jarriko da jendaurrean, interesdun orok egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Izan ere, Iruraiz-Gaunako udaletxeko bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluko 5. paragrafoan eta berau garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluko 1080/1992 Foru Dekretuak 7, 8 eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 8a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, D JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral nº 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de setiembre de 2009.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, D JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**6373**

**545/2009 ERABAKIA, irailaren 8ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez onartu egiten da Alegría-Dulantziko balioespen txostenetik eratorritako katastro balioen jakinarazpena subjektu pasiboa edo pertsona baimendua bertaratuz egitea.**

Uztailaren 21eko 476/2009 Erabakiaren bitartez onartu egin zen Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako lurzoruaren eta hiri eraikuntzen balioespen txostena –Alegría-Dulantziko udalerrirako egindakoa-.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, katastroko balioak banan-banan jakinarazi beharko zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, eta horretarako subjektu pasiboa agertu beharko da adierazitako bulego publikoetan, edo berak baimendutako pertsona, esandako balioak indarrean jarri beharreko aurreko urtea amaitu baino lehen.

Foru Aldundiak Alegría-Dulantziko udalerrirako katastro balio berriak jakinarazi dizkie subjektu pasiboei. Dena den, lege aldetik segurtasun handiago lortzearren, komenigarri ikusi da jakinarazpena subjektu pasiboak jasotzea Bulego Publikoetan, edo berak baimendutako pertsonak.

Hori dela-eta, Foru Aldundiak, lege segurtasun hori areagotzearren, administrazio bulegoetan agertu beharra ezarri du Alegría-Dulantziko udalerrirako Balioespen Txostenaren ondorioz sortutako katastro balioei buruzko jakinarazpena jasotzeko.

Ikusi da Udal Zerga eta Katastroaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

ERABAKI DU

Lehenengo.- Uztailaren 21eko 476/2009 Erabakiaren bitartez onartu zen Alegría-Dulantziko udalerrirako egindako Ondasun Higiezinen Zergari lotutako lurzoruaren eta hiri eraikuntzen balioespen txostenaren ondorioz atera diren katastro balioen jakinarazpena subjektu pasiboak jasota egitea, edo berak baimendutako pertsonak.

Horretarako, subjektu pasiboa edo baimendutako pertsona Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuaren bulegoan agertu beharko da (Samaniego kalea, 14 - 2. solairua. Vitoria-Gasteiz), eta hantxe jaso jakinarazpena.

Bigarrena.- Aurreko artikuluan aipatzen den jakinarazpena jasotzeko epea hamar egunekoa izango da, iragarkia ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrena.- Jakinarazpena jasotzeko hamar eguneko epe horretan subjektu pasiboak edo horretarako baimendutako pertsonak dagokion jakinarazpena jaso ez badu, jakinarazpena egin dela ulertuko da ondorio guztietarako.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**6373**

**ACUERDO 545/2009, del Consejo de Diputados de 8 de septiembre, que aprueba la notificación por personación del sujeto pasivo o persona autorizada de los valores catastrales derivados de la Ponencia de Valores de Alegría-Dulantzi.**

Mediante Acuerdo 476/2009, de 21 de julio, se aprobó la Ponencia de Valores del suelo y construcciones urbanas, sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, del término municipal de Alegría-Dulantzi.

De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, los valores catastrales deberán ser notificados individualmente a cada sujeto pasivo o mediante personación del mismo o persona autorizada al efecto, en las Oficinas Públicas que se determinen, antes de la finalización del año inmediatamente anterior a aquél en que deban surtir efecto dichos valores.

Por parte de la Diputación Foral se ha procedido a comunicar a los sujetos pasivos los nuevos valores catastrales del término municipal de Alegría-Dulantzi. Ahora bien, en orden a conseguir una mayor seguridad jurídica, se considera conveniente proceder a la notificación mediante personación del sujeto pasivo o persona autorizada en las Oficinas Públicas.

Es por ello que la Diputación Foral ha decidido que, para aumentar la referida seguridad jurídica, la notificación de los valores catastrales resultantes de las Ponencias de Valores del término municipal de Alegría-Dulantzi se practiquen mediante personación en las oficinas administrativas.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Tributos Locales y Catastro.

ACUERDO

Primero.- La notificación de los valores catastrales resultantes de la Ponencia de Valores del suelo y construcciones urbanas del término municipal de Alegría-Dulantzi, aprobado mediante Acuerdo 476/2009, de 21 de julio, se practicará por personación del sujeto pasivo o persona autorizada para ello.

A tal efecto, el sujeto pasivo o la persona autorizada podrá personarse en las Oficinas del Servicio de Tributos Locales y Catastro, sita en la calle Samaniego número 14-2ª planta de Vitoria-Gasteiz, para retirar la oportuna notificación.

Segundo.- El plazo para la retirada de las notificaciones a que se refiere el apartado anterior será de diez días, a contar desde el siguiente al de la publicación del correspondiente anuncio en el BOTHA.

Tercero.- Transcurrido el citado plazo de diez días para la retirada de las notificaciones sin que el sujeto pasivo o la persona autorizada al efecto hubiera retirado la notificación correspondiente, se entenderá a todos los efectos como notificado.